

KLINIKA LAGUNTAILE PLAZAK BETETZEKO 2. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA EGIAZTATZEKO EUSKARA-PROBAK

Deialdiko lanpostuek 2. hizkuntza-eskakizuna dute.

1.- Oposizio-fasea gainditu duten eta 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatu ez duten hautagaiek, euskara-probak egin beharko dituzte. Proba horiek 2021eko martxoaren lehen hamabostaldian egingo dira.

Proba horiek egin behar dituzten hautagaiei, HERNANIKO UDALEKO ZERBITZU SOZIALAK erakundeko administrazioarekin harremanetan jartzeko, eskatzen zaie.

IVAPek proben lekua, eguna eta ordua ezarri ondoren, webgune honetan argitaratuko dira.

2.- 2. hizkuntza-eskakizuna egiaztatuta duten eta oposizio-fasea gainditu duten hautagaiek konpultsatutako ziurtagiria aurkeztu beharko dute, 2021eko martxoaren 15a baino lehen.

Hernani, 2021eko urtarrilaren 13a. Epaimahaia.